| 2. Emakidaren oinarri izango den proiektua korporazioak onartu ondoren, administrazio-emakidak esleitzeko lizitaziorako deialdia egingo da. | 2. Aprobado por la corporación el proyecto que hubiere de servir de base a la concesión, se convocará licitación para adjudicar las concesiones administrativas. |
| 3. Emakida-epea amaituta, Udalak, programa beraren barruan, beste administrazio-emakida batzuk emango baditu udal-baratze berberetarako, ez da beharrezkoa izango beste proiektu bat idaztea, eta emakidak onartutako proiektuaren arabera eman ahal izango ditu. Proiektu hori osorik aplikatuko da, edo baldintza-agiria aldatuta. | 3. Si finalizado el plazo de concesión, el Ayuntamiento va a otorgar –dentro del mismo programa– nuevas concesiones administrativas para las mismas huertas municipales, no será necesario redactar un nuevo proyecto, pudiendo otorgar las concesiones con arreglo al proyecto aprobado, el cual se aplicará bien en su integridad o bien modificando el pliego de condiciones. |
| Kasu horretan, Alkatetza izango da baldintza-agiri berria eta deialdia | En este caso, el órgano competente para la aprobación del nuevo pliego de |

ANOETAKO UDALA

onartzeko organo eskuduna.

Lizitazio berrirako aurreko proiektua osorik aplikatzen bada, ez da beharrezkoa izango jendaurrean jartzeko aldi bat irekitzea.

**13. artikulua. *Emakidaren titulua.***

Administrazio-emakidak herri-baratzea eta elementu komunak erabiltzeko ematen duen eskubidea pertsonala da eta besteri eskualdaezina, eta lagapenerako ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean soilik balioko du.

Pertsona erabiltzaileak ezin izango ditu, inola ere, erabiltzaile izateak ematen dizkion erabilera-eskubideak laga, kargatu edo doan edo kostu bidez erabili.

Eskubide horiek ezin izango dira hirugarrenen esku utzi.

**14. artikulua. *Lagapen eta administrazio-emakidaren epea.***

Lurraren aprobetxamendua edota erabilera administrazio-emakidaren indarraldirako emango da.

Administrazio-emakidaren epea emakidak emateko baldintza-agirian ezarriko da; epe hori ezin izango da, inola ere, sei urtetik gorakoa izan, luzapenak barne.

Emakida-epea udal-baratzeak esleitzeko zozketaren emaitza argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da, administrazio-emakida zein egunetan formalizatzen den kontuan hartu gabe.

Emakidaren epea igaro ondoren, edo emakida ezeztatu ondoren, titularrak garbi eta landatzeko moduan utzi beharko du

condiciones y la convocatoria será la Alcaldía.

En el caso de que para la nueva licitación se aplique en su integridad el proyecto anterior, no será necesario abrir un periodo de información pública.

**Artículo 13. *Título de otorgamiento.***

La concesión administrativa otorga un uso personal e intransferible de la huerta municipal y de los elementos comunes, y sólo producirá efectos mientras concurran las condiciones establecidas para su otorgamiento.

La persona usuaria no podrá, en ningún caso, ceder, gravar o disponer a título oneroso o gratuito de los derechos que se deriven de su condición de persona usuaria.

Dichos derechos no podrán ser en ningún caso objeto de transmisión a terceras personas.

**Artículo 14. *Plazo cesión y de la concesión administrativa.***

El aprovechamiento y/o uso del terreno se concederá por el periodo de vigencia de la concesión administrativa.

El plazo de la concesión administrativa se establecerá en el pliego de condiciones para el otorgamiento de las concesiones, sin que en ningún caso pueda exceder de seis años, prórrogas incluidas.

El plazo de concesión se computará a partir del día siguiente a la publicación del resultado del sorteo para la adjudicación de las huertas municipales, con independencia de la fecha en la que se formalice la concesión administrativa.

Trascurrido el plazo de la concesión, o revocada la misma, la persona titular deberá de dejar la huerta municipal limpia

udal-baratzea, Udalak kontrakorik adierazi ezean.

**15. artikulua. *Administrazio-emakidak azkentzea.***

Herri-baratzeak erabiltzeko eskubidea ematen duten administrazio-emakidak kasu hauetan azkenduko dira:

1. Epea amaitzea.

2. Pertsona onuradunak atzera egiteagatik edo uko egiteagatik.

3. Administrazio-emakidaren titularraren heriotzagatik edo nortasun juridikoa amaitzeagatik. Kasu horietan, oinordekoek edo senitartekoek baratzean dauden produktuak jaso ahal izango dituzte.

4. Bi alderdien arteko adostasunez.

5. Ebazpen judizialaren bidez.

6. Herri-jabariaren emakida aurreikusitako epeetan ez formalizatzea, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

7. Administrazio-emakida berreskuratzeagatik edo errebokatzeagatik:

a) Ordenantza honetan edo dagokion administrazio-emakida ematen duen ebazpenean jasotako betebeharrak eta xedapenak ez betetzeagatik ezarritako administrazio-zehapena.

b) Erabiltzailea baratzeko berezko lanak egiteko ezgaitzen duen gaixotasuna. Kasu horretan, senideek baratzean dauden baratze-produktuak jaso ahal izango dituzte.

c) Erroldatzea galtzea, edo emakidaren indarraldi osoan erroldatuta ez egotea edo

y apta para ser cultivada, salvo que el Ayuntamiento le señale lo contrario.

**Artículo 15. *Extinción de las concesiones administrativas.***

Las concesiones administrativas que otorgan el derecho al uso de las huertas municipales se extinguen:

1. Por vencimiento del plazo.

2. Por desistimiento o renuncia de la concesión administrativa, presentada por la persona beneficiaria, ante el Ayuntamiento.

3. Por defunción de la persona titular de la concesión administrativa o extinción de la personalidad jurídica. En este caso, las personas herederas o familiares podrán recoger los productos hortícolas que hubiese en la huerta.

4. Por mutuo acuerdo entre las partes.

5. Por resolución judicial.

6. La no formalización de la concesión demanial en los plazos previstos por causa imputable a la adjudicataria.

7. Por rescate o revocación de la concesión administrativa:

a) Por sanción administrativa impuesta por incumplimiento de las obligaciones y disposiciones contenidas en la presente Ordenanza o en la resolución por la que se conceda la correspondiente concesión administrativa.

b) Enfermedad que incapacite a la usuaria para desarrollar las labores propias de la huerta. En este caso, los familiares podrán recoger los productos hortícolas que hubiese en la huerta.

c) Pérdida del empadronamiento, o no vivir ininterrumpidamente en una vivienda

ANOETAKO UDALA

udalerri horretako etxebizitza batean etenik gabe ez bizitzea.

de este municipio durante todo el periodo de vigencia de la concesión.

d) Partzela erabiltzeari edo landatzeari uztea bi hilabete baino gehiagoz, Udalaren aldez aurreko baimena izan ezean.

d) Abandono en el uso o cultivo de la parcela, durante más de dos meses, salvo que cuente con autorización previa del Ayuntamiento.

e) Esleipena eragin zuten inguruabarretako edota betekizunetako beste edozein gerora desagertzen bada.

e) Por desaparición sobrevenida de cualesquiera otras de las circunstancias y/o requisitos que motivaron la adjudicación.

f) Ordenantza honetan zehaztutako edozein bateraezintasun edo debeku gertatzea.

f) Concurrencia de cualquiera de las incompatibilidades o prohibiciones que se detallan en esta Ordenanza.

g) Baratzea Ordenantza honetan ezarritakoez bestelako erabilera eta helburuetarako erabiltzea.

g) Utilización de la huerta para uso y finalidades diferentes a las establecidas en esta Ordenanza.

h) Erabilera-kanona ez ordaintzea.

h) Impago del canon de utilización.

i) Gainerako erabiltzaileekiko bizikidetzari, auzotasun-harremanei edo jokabide solidarioari buruzko oinarrizko arauak ez betetzea.

i) Incumplimiento de las normas básicas de convivencia, relaciones de vecindad o conducta insolidaria para con los demás usuarios.

j) Udalak edo beste edozein administrazio publikok hirigintza edo azpiegitura garatzeko edozein plan onartzea, udal-baratzetarako lursailetan edozein zuzkidura publiko ezartzea badakar.

j) Aprobación de cualquier Plan de desarrollo urbanístico o de infraestructura por parte del Ayuntamiento o cualesquiera otra Administración Pública, que conlleve la implantación de cualquier dotación pública sobre los terrenos destinados a huertas municipales.

Kasu horietan, aipatutako plana onartzeak onura publikoko edo gizarte-intereseko deklaratzea ekarriko du, herri-jabariko lurrak erabiltzeko gaitzen duten tituluak indarrik gabe uzteko.

En estos casos, la aprobación del referido Plan conllevará la declaración de utilidad pública o interés social, a efectos de dejar sin vigencia los títulos habilitantes para el uso de los terrenos demaniales.

k) Aisialdiko baratze ekologikoen programa ordezten duen edo harekin bateraezina den edozein udal-programa onartzea.

k) La aprobación de cualquier programa municipal que sustituya o sea incompatible con el programa de huertos ecológicos de ocio.

l) Interes publikoko beste edozein arrazoirengatik.

l) Por cualquier otra causa circunstancia sobrevenida de interés público.

m) Programa honetarako Udalari lagatako lursail pribatuetan kokatutako baratzeen

m) En el caso de concesiones sobre huertas ubicadas en terrenos privados

gaineko emakiden kasuan, lurren errentamendua edo lagapena amaitzeagatik.

cedidos al Ayuntamiento para este programa, por finalización del arrendamiento o cesión de los terrenos.

**16. artikulua. *Administrazio-emakida kentzeko prozedura eta ondorioak.***

**Artículo 16. *Procedimiento de revocación de la concesión y sus consecuencias.***

1. Espedientea ofizioz hasiko da, udalak udal-ortuen programarako izendatzen dituen teknikarien edo arduradunen (pertsona fisikoak zein juridikoak) txostenarekin.

1. El expediente se iniciará de oficio, con el informe del personal técnico o personas responsables (tanto personas físicas como jurídicas) que el Ayuntamiento designe para el programa de huertas municipales.

Espedientea ebatzi aurretik, erabiltzaileari 10 egun balioduneko epea emango zaio – entzunaldi-izapide gisa – bere eskubideak defendatzeko egokitzat jotzen dituen alegazioak eta/edo dokumentuak aurkez ditzan.

Antes de resolver el expediente, se concederá a la usuaria un plazo de 10 días hábiles –como trámite de audiencia– para que presente las alegaciones y/o documentos que estime pertinentes para la defensa de sus derechos.

2. Emakida errebokatuz gero, automatikoki galduko da zerbitzuaren erabiltzaile-izaera.

2. La revocación de la concesión determinará la pérdida automática de la condición de persona usuaria del servicio.

Emakida baliogabetzeak eta, ondorioz, zerbitzuaren erabiltzaile-izaera galtzeak ez du, inola ere, pertsona horren aldeko kalte-ordainik aitortuko, ez eta ordaindutako tasa itzultzeko eskubiderik ere. Gainera, hala badagokio, errebokatzeak fidantza konfiskatzea ekar dezake, baita udalari edo hirugarrenei eragindako kalte-galeren ordaina eskatzea ere.

La revocación de la concesión y la consiguiente pérdida de la condición de persona usuaria del servicio no dará lugar, en ningún caso, al reconocimiento de indemnización alguna a favor de aquella persona, ni derecho alguno a la devolución de la tasa abonada. Además, en su caso, la revocación podrá suponer la incautación de la fianza, así como la exigencia de la correspondiente indemnización de daños y perjuicios irrogados al Ayuntamiento o terceros.

## IV TITULUA

## ERABILERA- ETA APROBETXAMENDU-BALDINTZAK

## TÍTULO IV

## CONDICIONES DE USO Y DE APROVECHAMIENTO

**17. artikulua. *Erabilera-baldintza orokorrak.***

**Artículo 17. *Condiciones de uso.***

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek esleitu zaien baratze publikoa erabili eta aprobetxatu beharko dute, eta ezin izango diote haren erabilera beste inori laga.

1. Las personas usuarias del servicio están obligadas a usar y aprovechar la huerta pública adjudicada por sí mismas y a no ceder su uso habitual a terceras personas.

2. Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Arau orokor gisa, Ordenantza honetan jasotako alderdi guztiak errespetatu beharko dituzte.

b) Laga diren instalazioak eman zaizkien baldintza beretan mantendu beharko dituzte. Baratzeak garbi mantendu behar dira, eta baimenaren epea amaitu ostean, dagozkion baldintzetan utzi behar dira, esleipendun izan daitezkeen pertsonek horiek erabil ditzaten.

c) Erabiltzeko uzten diren ondasunak modu egokian zaintzea. Gainerako erabiltzaileek edo hirugarren pertsonek baratzeetan edo instalazioetan eragindako edozein gorabeheraren berri emango diote Udalari.

d) Hasieran uzten den baratzearen hasierako egitura eta azalera mantentzea. Horrenbestez, erabiltzaileek ezin izango dute Udalak hasieran utzitako baratzearen mugaketa aldatu, ezta Udalaren baimenik gabe inolako obra edo itxiturarik eraiki ere. Era berean, ezingo da lurra lantzeko berariaz erabiltzen ez den elementurik instalatu, hala nola barbakoak, estalpeak, etxolak...

e) Baratzeetan animalien presentzia galaraztea, txakur gidariena izan ezik.

f) Baratzeko lan guztiak egin, eta bereziki, uzta jasotzea, hark usain txarra eragiten badu, lursaila zikintzen badu edo lursaila bera eta paisaia kaltetzen baditu.

g) Baratze publikoen barnean trakzio mekanikoko ibilgailurik ez erabiltzea, nekazaritzako makinaria izan ezik.

2. Además, deberán cumplir las siguientes condiciones generales:

a) Como regla general, respetar todos los aspectos recogidos en la presenta Ordenanza.

b) Mantener las instalaciones que se ceden en las mismas condiciones en las que hayan sido entregadas. La huerta deberá estar limpia en todo momento, y una vez finalizado el plazo de la autorización deberá ser entregada en condiciones adecuadas para el disfrute de nuevas personas que pudieran ser adjudicatarias.

c) Custodiar y cuidar adecuadamente los bienes que se entregan en concepto de uso. Deberán poner en conocimiento del Ayuntamiento, cualquier incidencia que afecte a las huertas o instalaciones, provocada por los demás usuarios o por terceras personas, ajenas al uso de aquéllas.

d) Mantener la misma estructura y superficie de la huerta que se cede en origen, no pudiéndose variar el deslinde que se cede en origen, no pudiéndose variar el deslinde efectuado por el Ayuntamiento, ni realizar ningún tipo de obra o cerramiento que no fuera previamente autorizado por el Ayuntamiento. Asimismo, no se podrá instalar ningún elemento que no se destine específicamente al cultivo de la tierra, tales como barbacoas, cobertizos, casetas...

e) Impedir la presencia de animales en las huertas, salvo la de los perros guía.

f) Realizar todos los trabajos de la huerta, en especial recolectar la cosecha si la misma produce hedor, ensucia el terreno, o perjudica el terreno y la vista del paisaje.

g) No se podrán utilizar vehículos de tracción mecánica en el interior de las huertas públicas, excepto maquinaria

agrícola.

h) Baratzeetan ez da materialik edo tresnarik bildu edo gordeko, nekazaritza-lanetarako behar-beharrezkoak direnean salbu.

h) No se podrán depositar o acumular materiales o herramientas sobre las huertas, que no sean estrictamente necesarios para el cultivo.

i) Ezin izango da beste pertsonentzat gogaikarria izan daitekeen musika-gailurik erabili.

i) No se podrán utilizar equipos musicales que puedan molestar a las otras personas.

j) Ez da baratzea lantzetik sortutako hondakinik edo belarrik erreko, ezta baratze publikoen eremuaren barnean inolako surik piztuko ere.

j) Se prohíbe la quema de hierbas o residuos del cultivo de huertas, así como la generación de cualquier tipo de fuego dentro del recinto de las huertas públicas.

k) Ez da beste baratzeetara isurpenik egingo eta ez dira belar-sastrakak garbitzetik sortutako hondakinak norberaren edo besteen baratzeetan utziko.

k) Se prohíbe realizar vertidos sobre los demás huertas, o depositar restos de desbroce o limpieza sobre las mismas o sobre la propia huerta.

l) Ezin izango da animaliei, hegaztiei edo pertsonei baratzeko bidea ixteko zepo, tranpa, lakio, perdigoi- edo balin-eskopeta, gomazko jaurtigailu edo bestelako tresna mekaniko edo naturalik erabili, hegaztiei sartzea eragozten dieten sareak izan ezik.

l) No se podrán utilizar cepos, trampas, lazos o escopetas de perdigones o balines, tiradores de goma u otros utensilios o instrumentos, mecánicos o naturales para evitar el acceso por tierra de cualquier animal, ave o persona, salvo las redes protectoras que impidan el acceso de aves.

m) Elementu komunak —azpiegiturak nahiz tresnak— erabilera- eta garbiketa-baldintza egokietan errespetatu eta mantendu beharko dira. Erabiltzaileek egunero zainduko dute baratzeen erabilera zuzena, eta instalazioen kontserbazioaz, konponketaz eta mantentzeaz arduratuko dira; horien erantzukizuna izango da horien erabilera desegokia egiten denean.

m) Respetar y mantener en las debidas condiciones de uso y limpieza los elementos comunes, tanto las infraestructuras como los aperos. La conservación, reparación y mantenimiento de las instalaciones y del correcto uso de las huertas será vigilada en el día a día por los propios usuarios, siendo responsabilidad suya en caso de un uso no adecuado de las mismas.

n) Udal baratzea baldintza egokietan itzultzea Udalari, erabiltzaile berriek erabil ditzaten, emakida-epea amaitzen denean edo, emakidari uko egiten bazaio edo errebokatzen bada, emakida gauzatzen den unean bertan.

n) Devolver la huerta municipal al Ayuntamiento en condiciones adecuadas para ser utilizadas por las nuevas usuarias, una vez finalice el plazo de concesión o en caso, de renuncia o revocación de la concesión en el mismo momento en que se haga efectivo la misma.

ñ) Udal-baratzeen gainerako erabiltzaileei eragozpenik ez eragitea, eta baratzeei kalteak edo lesioak eragin diezazkieketen tramankuluak, mekanismoak edo sistemak

ñ) Evitar causar molestias a las demás personas usuarias de las huertas municipales, absteniéndose de la utilización de artilugios, mecanismos o

ANOETAKO UDALA

ez erabiltzea.

sistemas que pudieran provocar daños o lesiones a los mismos.

3. Halaber, erabilera-baldintza berezi gisa, baratze publikoetan ez da baimentzen:

3. Asimismo, como condiciones especiales de uso, en las huertas públicas no se permite:

- Pertsona erabiltzaileak paisaian eragina izan dezaketen edo instalazioetan kalteak eragin ditzaketen elementuak instalatzea, hala nola, bidoiak, biltegiak, xaflak, banatzaileak edo antzekoak.

- La instalación por parte de la persona usuaria de elementos que deterioren el paisaje o que alteren las instalaciones existentes, tales como bidones, depósitos, chapas, separadores o similares.

- Lursailean edozein motatako eraikuntzak egitea, edo ingurunea alda dezaketen eguzkitako, esekigailu edo antzeko elementuak ezartzea.

- La construcción de cualquier tipo de edificación en la parcela, ni colocación de sombreados, tenderos o cualquier otro elemento que altere el aspecto del entorno.

- Baratzeak ixteko, mugatzeko, markatzeko edo seinalatzeko harriak, egurrak, adreiluak, blokeak edo bestelako elementuak erabiltzea. Udalak adierazitakoak soilik erabili ahal izango dira.

- El uso de piedras, maderas, ladrillos, bloques u otros elementos para cerrar, delimitar, marcar o señalar la huerta u orillas distintas de los establecidos por el Ayuntamiento para su delimitación.

4. Emakidaren titularrak aurreko paragrafoetan adierazitako baldintza edo betekizunen bat betetzen ez badu, Udalak ezeztatu egingo du emakida.

4. El incumplimiento de la persona titular de la concesión de alguna de las condiciones o requisitos señalados en los apartados anteriores, dará lugar a la revocación de la misma, por el Ayuntamiento.

Udalak horretarako izendatutako pertsonak edo erakundeak erregulartasunez zainduko du baratzeak nola erabiltzen diren, eta ez da beharrezkoa izango aldez aurretik erabiltzaileari jakinaraztea.

La persona o entidad designada por el Ayuntamiento a tal fin vigilará de forma regular el uso que se realice de las huertas, no siendo necesario el aviso previo a la persona usuaria.

Emakidak irauten duen bitartean, bi ikuskapen-bisitetan ondorioztatzen bada baratze edo lursail baten erabilera desegokia edo kaltegarria dela, desgaitu egingo da baratzea erabiltzeko, eta baja emango zaio baratzearen erabiltzaile gisa.

Mientras dure la concesión, si en dos visitas de inspección se concluye que el uso de alguna huerta o terreno es inadecuado o desfavorable, se procederá a inhabilitar para el uso de la misma y darle de baja como persona usuaria de la huerta.

**18. artikulua. *Esleipendunaren betebeharrak.***

**Artículo 18. *Obligaciones de la persona adjudicataria.***

1. Esleipendunek egunero egingo dituzte

1. Las personas adjudicatarias realizarán

baratzeko instalazioak kontserbatzeko, konpontzeko eta mantentzeko lanak, eta ondo erabiltzen direla zainduko dute.

diariamente las tareas de conservación, reparación y mantenimiento de las instalaciones de la huerta, velando por su buen uso.

2. Esleipendunak behartuta daude baratzean sortutako biohondakina konpostatzera. Horretarako, udalak udal-baratzeen ondoan horretarako prestatuko duen azpiegitura erabiliko dute.

2. Las personas adjudicatarias están obligadas al compostaje del biorresiduo generado en la huerta, utilizando para ello la infraestructura que habilitará para dicho fin el Ayuntamiento junto a las huertas municipales.

**19. artikulua.** ***Erabiltzailearen eskubideak edo ahalmenak.***

**Artículo 19.** ***Derechos o facultades de la persona adjudicataria.***

1. Emakidaren esleipendun izan den pertsonaren ahalmenak edo eskubideak dira lurra lantzea eta lortutako fruituak aprobetxatzea.

1. Son facultades o derechos de la persona que haya resultado adjudicataria de la concesión, las de cultivar la tierra y el aprovechamiento de los frutos obtenidos.

Ahalmen horiek honako hauek dira: lurra lantzea, ereitea eta landatzea, eta ureztatzea, ongarritzea, horretarako behar diren tresnak erabiltzea, fruituak eskuratzea, eta helburu bera duen beste edozein lan.

Dichas facultades se concretan en el labrado de la tierra, la siembra y plantación, el cuidado y mantenimiento de aquélla, el riego, el abono, el uso de las herramientas precisas para ello, la adquisición de los frutos, y cualquier otra labor que tenga el mismo objetivo.

2. Era berean, elementu komunen erabilera, gozamena eta aprobetxamendua barne hartzen ditu, Udalak eskura jartzen dituen nekazaritzako lanabesak barne. Lanabesen mantentze-lanak eta konponketak erabiltzaileen kontura izango dira. Hausten badira, erabiltzaile bakoitzak konpondu edo birjarri beharko ditu.

2. Igualmente comprende el uso, disfrute y aprovechamiento de los elementos comunes, incluyendo los aperos de labranza que el Ayuntamiento ponga a disposición. El mantenimiento y arreglo de los aperos será a cargo de los y las usuarias. En el caso de que se rompan deberá arreglarlos o reponerlos cada persona usuaria.

3. Artikulu honetan adierazitako ahalmenak administrazio-emakidaren titularrari bakarrik dagozkio.

3. Las facultades expresadas en este artículo únicamente corresponderán a la persona titular de la concesión administrativa.

4. Ahalmen horiek azkendutzat joko dira erabilera baimentzeko epea igarotzen denean, edo erabilera hori gaitzen duen emakida ezeztatzen denean, ordenantza honetan adierazitako arrazoiengatik.

4. Dichas facultades se entenderán extinguidas una vez transcurra el plazo de autorización del uso, o se revoque la concesión que habilita el mismo, en base a las causas expresadas en esta Ordenanza.

**20. artikulua.** ***Nekazaritza ekologikoa.***

**Artículo 20.** ***Cultivo ecológico.***

ANOETAKO UDALA

1. Baratzeen aprobetxamenduak honako arau hauek bete beharko ditu:

a) Ezin izango da lurrarentzat (azalean nahiz lurpean) kaltegarria izan daitekeen landare-espezierik landatu.

b) Laborantza-motak:

Inguruan ohikoak diren landare-espezieak bakarrik landatuko dira: letxuga, tomatea, tipula, porrua, kalabazina, babarrunak, landare eta lore apaingarriak, eta landare aromatikoak edo sendabelarrak.

Ezin izango dira landatu autoktonoak ez diren espezieak, espezie exotikoak edo inbaditzaileak, eta legeak debekatzen dituen espezie guztiak.

Ezin izango dira landatu sasoikoak ez diren eta gehienez ere zortzi hilabeteko epean bildu ezin diren espezieak, ezta fruta-arbolak ere.

c) Ordenantza honetan baimendutako substantziak bakarrik erabiliko dira landaketak, garbiketak edo beste edozer egiteko.

d) Ezin izango da erabili lurrarentzat, azaleko urarentzat eta akuiferoentzat kaltegarria izan daitekeen ongarri eta produktu fitosanitariorik, ezta atmosferara pertsonentzako, faunarentzako eta florarentzako partikula kaltegarriak aska ditzakeen produkturik ere. Era berean, ezin izango da erabili lurra kutsatu dezakeen garbiketa-produkturik edo horrelakorik.

e) Debekatuta dago, halaber, lurrari kalte larria eragin diezaioketen produktu kutsatzaileak botatzea.

f) Ahal izanez gero, produktu naturalak

1. El aprovechamiento de las huertas deberá sujetarse a las siguientes normas:

a) No se permitirá el cultivo de especies vegetales o plantas que provoquen un deterioro de la tierra, del suelo o del subsuelo.

b) Tipología de de cultivos:

Se cultivaran exclusivamente especies vegetales de la zona tanto hortícola: lechuga, tomate, cebolla, puerro, calabacín, alubias, etc. como flores o plantas ornamentales y plantas aromáticas o medicinales.

Se descartarán todas aquellas especies que no sean autóctonas, especies exóticas, invasoras, o aquellas otras cuyo cultivo o siembra no estuviera permitido por ley.

No está permitida la plantación de especies que no sean de temporada, cuya recopilación no pueda efectuarse antes de ocho meses desde la siembra, ni de especies arbóreas frutales.

c) Se utilizarán exclusivamente las sustancias autorizadas en esta Ordenanza para el cultivo, la limpieza o con cualquier otro fin.

d) No se utilizarán fertilizantes ni productos fitosanitarios que contaminen y que entrañen riesgo de provocar un grave perjuicio sobre la tierra, las aguas superficiales y los acuíferos. Tampoco podrán emitir partículas indeseables a la atmósfera que puedan provocar daños tanto a la fauna como a la flora o a las personas del lugar ni utilizar productos de limpieza u otros que contaminen el suelo.

e) Igualmente, queda terminantemente prohibido realizar cualquier vertido de productos contaminantes sobre la tierra, que puedan provocar un daño grave al suelo.

f) En la medida de lo posible, se usarán

erabiliko dira izurriei eta gaixotasunei aurre egiteko, eta ongarri artifizialen ordez deskonposatutako materia organikoa erabiliko da lurra ongarritzeko (konposta, simaurra, hondakin organikoak eta abar).

2. Aurreko arauez gain, honako baldintza hauek bete beharko dira gutxienez:

a) Ongarriei dagokienez:

Debekatuta daude:

- Sintesi bidez lortutako ongarri organiko guztiak eta produktu kutsatuekin egindako konpostak (lastoa, simaurra, pestizida eta herbizidekin tratatutako belarrak eta ongarri organikoak).

- Prozedura kimikoen bitartez lortutako ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fosfatatuak, potasikoak, magnesiodunak, kare bizia...).

Baimenduta daude:

- Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpost bihurtutako simaurrak (konpostajea hartzidura aerobikoko prozesu gisa hartuta), ongarri berdeak eta guztiz deskonposatutako uzta-hondakinak, baita kutsatu gabeko hondakinekin egindako konposta ere.

- Jatorri naturaleko ongarri mineralak (xehatutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri xehatuak, dolomitak...).

b) Tratamendu fitosanitarioei dagokienez:

Debekatuta daude:

Intsektizidak, fungizidak, akarizidak eta sintesi kimikotik eratorritako bestelako produktuak.

Baimenduta daude:

remedios naturales contra las plagas y enfermedades y se abonará la tierra con regularidad con materia orgánica previamente descompuesta (compost, estiércol, restos orgánicos...) en lugar de fertilizantes artificiales.

2. Además de las precedentes normas se deberán cumplir, como mínimo, las siguientes condiciones:

a) Con relación a los fertilizantes:

Quedan prohibidos:

- Todos los abonos orgánicos de síntesis y los compost elaborados con productos contaminados (pajas, estiércoles, hierbas y abonos orgánicos tratados con pesticidas y herbicidas).

- Todos los abonos minerales (nitrogenados, fosfatados, potásicos, magnésicos, cal viva...) obtenidos por procedimientos químicos.

Quedan autorizados:

- Los abonos procedentes de humus de lombrices, los estiércoles compostados (entendiendo el compostaje como un proceso de fermentación aeróbica), abonos verdes y restos de cosechas perfectamente descompuestos, así como los compost elaborados a partir de residuos no contaminados.

- Los abonos minerales de origen natural (fosfatos naturales molidos, polvos de silíceas, calizas molidas, dolomitas...).

b) Con relación a los tratamientos fitosanitarios:

Queda prohibida:

La utilización de insecticidas, fungicidas y acaricidas y otros productos procedentes de la síntesis química.

Quedan autorizados:

- Substantzia naturalekin (mineralak nahiz landare- edo animalia-jatorrikoak) egindako fungizidak (Bordeles salda, Borgoñako salda...).

- Landareekin egindako prestakinak (mazerazioak, infusioak, egosketak, gernuak).

c) “Belar txarrei” dagokienez:

Debekatuta dago sintesi bidez lortutako edozein herbizida kimiko erabiltzea.

Bestalde, metodo biologikoak erabili ahal izango dira belar kaltegarriak kontrolatzeko (lur-estalkia, eskuzko jorra edo erdi eskuzkoa, zapalda sakoneko laborantza).

d) Haziei eta landareei dagokienez:

Debekatuta daude:

- Laborantza kimikotik eratorritako edo sintesi bidez lortutako produktu kimikoekin tratatutako barazkiak, sustraiak, erraboilak, tuberkuluak eta haziak.

- Edozein mota eta aldaerako genetikoki moldatutako organismoak (transgenikoak).

Baimenduta daude:

- Nekazaritza biologikotik eratorritako barazkiak, sustraiak, erraboilak, tuberkuluak eta haziak.

- Nekazaritza konbentzionaletik eratorri arren, sintesi bidezko produktu kimikoekin tratatu ez diren produktuak.

**21. artikulua.** ***Ureztatzeko baldintzak.***

1. Debekatuta dago ur-hartuneak zabalik uztea, ureztatzeko ura alferrik galtzen uztea edo gehiegizko ur-kontsumoa

- Los fungicidas preparados a base de sustancias naturales minerales, vegetales o animales (caldo Bordelés, caldo Borgoñés...).

- Los distintos preparados a base de plantas (maceraciones, infusiones, decocciones, urines).

c) Con relación a las “malas hierbas”:

Queda prohibida la utilización de cualquier herbicida químico de síntesis.

Queda autorizada la utilización de los métodos biológicos para el control de hierbas competidoras (acolchado, escarda manual o semimanual, cultivo en bancal profundo).

d) Con relación a las semillas y las plantas:

Queda prohibida:

- La utilización de hortalizas, raíces, bulbos, tubérculos y semillas que provengan de cultivo químico o hayan sido tratados con productos químicos de síntesis.

- Todos los organismos modificados genéticamente de cualquier tipo y variedad (transgénicos).

Queda autorizada:

- La utilización de hortalizas, raíces, bulbos, tubérculos y semillas que proceden de la agricultura biológica.

- La utilización de estos productos, que, aunque procedentes de cultivos convencionales, no hayan sido tratados con productos químicos de síntesis.

**Artículo 21.** ***Condiciones para riego.***

1. Queda prohibido dejar tomas de agua abiertas, despilfarrar el agua de riego o la utilización de métodos de riego que

ANOETAKO UDALA

eragiten duten ureztatze-metodoak erabiltzea.

provoquen un consumo anormal del agua disponible.

2. Debekatuta dago, halaber, baratzeak ureztatzeko ura horretarako prestatu gabe eta baimendu gabe dagoen beste edozein tokitatik ekartzea.

2. Queda prohibido, asimismo, la traída de aguas desde cualquier otro punto que no se encuentre habilitado al efecto y que no cuente con autorización, para el riego en las huertas.

3. Erabiltzaileek ureztagailuak erabiliko dituzte baratzeak ureztatzeko, eta instalazioetako urasketatik hartuko dute ura.

3. Las personas usuarias deberán realizar el riego con regaderas con agua de las albercas que encontrarán a su disposición.

4. Debekatuta dago instalazioetan eskura ez dagoen beste elementurik erabiltzea. Horrenbestez, debekatuta dago aspertsoreak edo aldameneko baratzeak busti ditzaketen bestelako bitartekoak erabiltzea.

4. Queda prohibido utilizar otros elementos distintos a los existentes o disponibles y, por tanto, el riesgo con aspersores u otros medios que puedan invadir otras huertas colindantes.

**22. artikulua.** ***Hondakinen tratamendua.***

**Artículo 22.** ***Tratamiento de residuos.***

1. Erabiltzaileak arduratuko dira baratzeak garbi mantentzeaz, eta hondakin organikoak konpost-gunean utzi beharko dituzte horretarako.

1. Las personas usuarias serán responsables del adecuado estado de limpieza de las huertas y para ello deberán de depositar los restos orgánicos en la zona de compostaje.

2. Gainerako hondakinak behar bezala kudeatu beharko dira baratze-parkean horretarako prestatutako puntuan edo, halakorik ez izanez gero, hurbilen dagoen hiri-hondakinen bilketa-sistemako puntuan.

2. El resto de residuos deberán gestionarse adecuadamente en el punto establecido en el parque de huertas o, en su defecto, en el punto más cercano del sistema de recogida urbana.

**23. artikulua.** ***Mantentze-gastuak eta finantziazioa.***

**Artículo 23.** ***Gastos de mantenimiento y financiación.***

1. Administrazio-emakidaren indarraldian, baratzearen erabiltzaileak bere gain hartu behar ditu baratzea landatzeak dakartzan gastuak: ongarriak, ereindako landareak eta landaketarako beharrezkoak diren gainerakoak.

1. Durante la vigencia de la concesión administrativa, la persona usuaria de la huerta debe hacerse cargo de los gastos que comporte el cultivo de la huerta: abonos, plantas sembradas y demás necesarias para el cultivo y manteniendo la plantación.

2. Erabiltzaileak bere gain hartu beharko ditu edozein karga (tasa, kanonak) eta udalak baratzeak erabiltzearen ondoriozko

2. La persona usuaria estará obligada a soportar la imposición de cualquier gravamen (tasa, cánones), y los que

ANOETAKO UDALA

| | |
|---|---|
| kostuak ordaintzeko beharrezkotzat jotzen dituenak. | considere necesario el Ayuntamiento para sufragar los costes que se deriven de la utilización de las huertas. |
| 3. Udalak baratzea landatzeko kanona eta udal jabari publikoko espazioa behar bezala erabiliko dela bermatzeko fidantza ezarriko ditu. Kanon horren zenbatekoak urtero onartuko dira dagokion Zerga Ordenantzan. | 3. El Ayuntamiento establecerá un canon por el cultivo de la huerta y una fianza en garantía de la correcta utilización del espacio de dominio público municipal, cuyas cuantías se aprobarán anualmente en la correspondiente Ordenanza Fiscal. |
| **24. artikulua.** ***Ingurumen Heziketa.*** | **Artículo 24.** ***Educación Ambiental.*** |
| 1. Baratze publikoak zabalik egongo dira inguruko ikastetxeetako ikasleentzat, eta oro har, handik pasatzen diren pertsona guztientzat, horrela, baratzeetan garatutako lanak eta nekazaritza tradizional eta ekologikoaren balioak ezagutarazteko. | 1. Las huertas públicas podrán ser visitadas por escolares de los distintos centros educativos o personas que pasen por la zona, con el fin de conocer las actividades desarrolladas en las mismas y los valores sobre la agricultura tradicional y ecológica. |
| 2. Erabiltzaileek nahitaez utzi beharko diete sartzen Udalak antolatutako bisitei, eskaintzen den zerbitzu publikoaren zati gisa, betiere baratze publikoetako parkeetako ingurumen-heziketa sustatzeko helburuarekin. | 2. Los usuarios están obligados a permitir la entrada a las visitas que se hayan organizado por el Ayuntamiento, como parte del servicio público ofertado y para fomentar la educación ambiental de los parques de huertas públicas. |
| V. TITULUA<br><br>ERANTZUKIZUN-ARAUBIDEA | TÍTULO V<br><br>RÉGIMEN DE RESPONSABILIDAD |
| **25. artikulua.** ***Pertsona erabiltzailearen erantzukizuna.*** | **Artículo 25.** ***Responsabilidad de la persona usuaria.*** |
| 1. Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzak bere baratzean gauzatutako ekintzen erantzukizuna izango du. Baimena eskatzeak Ordenantza honetan zehaztutako guztia onartzen dela esan nahi du, baita esleitu zaion baratzearen erabileratik eta aprobetxamendutik eratorritako erantzukizuna bere gain hartzen duela ere. | 1. Cada persona usuaria del servicio será responsable de los actos que realice sobre su huerta. La solicitud de la licencia supone la plena aceptación del contenido de esta Ordenanza e, ineludiblemente, la asunción de la responsabilidad derivada del uso y del aprovechamiento de la huerta adjudicada. |
| Horrenbestez, pertsona erabiltzaileak honako hauen gaineko erantzukizuna izango du: | Por lo tanto, la persona usuaria tiene responsabilidad sobre: |
| a) Lantze-prozesua. Udalak ez du inolako | a) El proceso de cultivo. El Ayuntamiento |

erantzukizunik izango lantze-prozesuaren ondorio eta emaitzetan, ezta lurraren egoeran eta haren emankortasun-gaitasunean ere.

no es responsable de ninguno de los efectos o resultados del proceso de cultivo, ni del estado de la tierra y de su capacidad productiva.

b) Laborantza-mota. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango nekazaritza-tresnen erabilerari eta erabilera horrek pertsonen osasun edo osotasun fisikoan izan ditzakeen ondorioei dagokienez.

b) La forma de cultivo de la tierra. El Ayuntamiento no es responsable de la utilización de los aperos ni de las consecuencias que su uso pueda tener para la salud o integridad física de las personas.

c) Erabiltzailearen produktuak eta lanabesak. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango baratzeetan gerta daitezkeen ekintza bandaliko, lapurreta edo kalteei dagokienez, ezta produktuek eta biltegiratutako lanabesek izan ditzaketen gorabeherei dagokienez ere.

c) Los aperos y productos de la persona usuaria. El Ayuntamiento no es responsable de los actos vandálicos, robos o daños sufridos en la huerta, ni sobre los productos ni sobre los aperos almacenados.

d) Animaliek baratzean edo landatutako produktuetan eragindako kalteak.

d) Los daños que produzcan los animales en el huerto o en los productos cultivados.

e) Baratzean bildutako produktuak. Landare eta barazki horiek norberaren edo hirugarrenen osasunean sor ditzaketen kalteak erabiltzailearen erantzukizuna izango dira.

e) Productos recolectores en la huerta. La persona usuaria será responsable de los efectos que para la salud, propia o de terceros generen estos productos.

f) Udal-baratzean izandako ekintza bandalikoak, lapurretak edo kalteak, horien produktu edo fruituak, edo erabiltzailearengandik gordetako lanabesak; horiek ezin izango zaizkio udalari egotzi, inola ere.

f) Los actos vandálicos, robos o daños sufridos en la huerta municipal, sus productos o frutos, o los aperos almacenados guardados de la persona usuaria, que no podrá imputar al Ayuntamiento en ningún caso.

2. Norberaren baratzean nahiz hirugarrenen baratzeetan edo lagatako instalazioetan kalte edo gorabeheraren bat ikusiz gero, pertsona erabiltzaileak haren berri eman beharko dio, berehala, Udalari.

2. La persona usuaria está obligada a comunicar de inmediato al Ayuntamiento en el caso de detectar daños o desperfectos en la huerta propia o de terceras personas o en las instalaciones cedidas.

**26. artikulua. *Erantzukizuna hirugarrenen aurrean.***

**Artículo 26. *Responsabilidad frente a terceros.***

1. Pertsona erabiltzaileek baratze publikoen erabileran eta aprobetxamenduan hirugarrenei eragindako kalteekiko erantzukizuna izango dute, kaltetutakoak beste baratze publiko batzuen erabiltzaile izan ala ez.

1. La persona usuaria será responsable de los posibles perjuicios a terceros, usuarios o no, de otras huertas públicas, causadas en el ejercicio de sus facultades de uso y aprovechamiento sobre las huertas públicas.

2. Era berean, beste pertsonei edo horien baratzeei eragindako kalteei edo lesioei erantzungo diete.

2. Asimismo, responderá de las lesiones o daños que ocasione sobre las demás personas o sus respectivas huertas.

3. Erabiltzaileek dagokion kalte-ordaina ordaindu beharko diote kaltetutako pertsonari, eragindako kalte-galerengatik.

3. La persona usuaria estará obligada para con la persona perjudicada a la correspondiente indemnización por daños y lesiones producidos.

**27. artikulua.** ***Itzultzeko eta lehengoratzeko betebeharra.***

**Artículo 27.** ***Devolución y obligación de restauración.***

1. Esleipendunari laga zitzaizkionean zituzten antzeko baldintzetan itzuliko dira baratzeak, kanpoko ekarpenengatik lurra funtsean aldatu gabe.

1. Las huertas serán devueltas en condiciones análogas a las que tenían cuando fueron cedidas a la adjudicataria, sin que la tierra haya sido modificada sustancialmente por aportes externos.

2. Eguneroko erabilera ez den beste arrazoiren baten eraginez instalazioak hondatuz gero, pertsona erabiltzaileek hondatutakoa konpondu edo berrezarri beharko dute.

2. Las personas usuarias, en los casos de deterioro en las instalaciones, que no fuera causa del uso normal diario, deberán de reponer o restaurar las cosas a su estado de origen.

3. Baratzea erabiltzeari uztean, pertsona erabiltzaileak tresnak eta lanabesak itzuli beharko ditu, utzi zirenean zuten antzeko baldintzetan.

3. Al dejar de usar la huerta, la persona usuaria deberá devolver los aperos en condiciones análogos a las que tenían cuando fueron cedidos.

4. Erabiltzaileren batek konponketa- edo leheneratze-obrak hasierako egoerara itzultzen ez baditu, udalak modu subsidiarioan eta arduradunaren kontura egin ahal izango ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean edo hori aldatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

4. En el caso de que alguna persona usuaria no realizara las obras de reparación o restitución a su estado inicial, el Ayuntamiento podrá llevarlas a cabo de manera subsidiaria y a cuenta de la persona responsable, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o normativa que lo modifique.

## VI TITULUA

## ZEHAPEN-ARAUBIDEA

## TÍTULO VI

## RÉGIMEN SANCIONADOR

**28. artikulua.** ***Arau orokorrak.***

**Artículo 28.** ***Reglas generales.***

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek Ordenantza honetan ezarritako guztia bete beharko dute, eta bertan aurreikusten ez denari

1. Las personas usuarias del servicio están obligadas a cumplir todo lo establecido en la presente Ordenanza y, en lo no previsto

ANOETAKO UDALA

dagokionez, aplikagarriak diren xedapen arau-emaileek xedatzen dutena.

2. Ordenantza honetan ezarritakoaren aurkako jokabide guztiak arau-hauste gisa hartuko dira eta Udalaren isuna jasoko dute.

3. Dolu, erru, zabarkeria edo ez-betetze hutsagatik udal-baratzeak kokatuta dauden herri-jabariko instalazioetan edo lurzatietan kalteak eragiten dituen erabiltzaileari isuna ezarriko zaio administrazio-bidetik, Ordenantza honetan ezarritako moduan. Era berean jokatuko da udal-baratzeen helburuak eta arauak betetzen ez direnean.

4. Zigorren zenbatekoaren graduazioa eta zehaztapena erabakitzeko orduan, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Eragindako kaltearen zenbatekoa.

b) Arau-hausleak lortutako etekina.

c) Arau-haustea egiteko asmorik izan den ala ez.

d) Urtebeteko epean arau-hauste bat edo gehiago egin izana, behin betiko ebazpen bidez horiek arau-hauste gisa hartu direnean.

5. Pertsona erabiltzaileen erantzukizuna honelakoa izan daiteke:

- Nagusia edo zuzenekoa, arau-haustearen egileak pertsona horiek direnean.

- Subsidiarioa, arau-haustea instalazioen erabiltzailea ez den beste pertsona batek egin duenean pertsona titularraren onespenarekin edo zabarkeriagatik, instalazioetan baimenik ez zuten hirugarrenei sartzen uzteagatik.

6. Isunaren zenbatekoa arau-hausleak lortutako onura baino txikiagoa denean,

en el mismo, lo dispuesto por las disposiciones normativas que resulten de aplicación.

2. Cualquier conducta contraria a los preceptos de la Ordenanza, se encuentra tipificada como infracción y será sancionada por el Ayuntamiento.

3. La persona usuaria que por dolo, culpa, negligencia o aún a título de simple inobservancia, causare daños en las instalaciones o parcelas demaniales en las que se ubican huertas municipales, será sancionadas por vía administrativa con multa, en los términos establecidos en la presente Ordenanza. Del mismo modo se procederá cuando se incumplan los fines y normas de las huertas municipales.

4. La graduación y determinación de la cuantía de las sanciones atenderá a los siguientes criterios:

a) La cuantía del daño causado.

b) El beneficio obtenido por la persona infractora.

c) La existencia o no de intencionalidad.

d) La reincidencia en el plazo de un año de una o más infracciones, cuando hayan sido declaradas por resoluciones firmes.

5. La responsabilidad de las personas usuarias podrá ser:

- Principal o directa, cuando esas personas sean las autoras de la conducta infractora.

- Subsidiaria, cuando sea persona ajena a las instalaciones la que hubiera cometida la infracción, con la con la benevolencia del usuario o por negligencia de éste, al permitir la entrada a personas terceras que lo tuvieran prohibido.

6. Cuando la cuantía de la multa resulte inferior al beneficio obtenido por el o la

ANOETAKO UDALA

zehapena handitu egingo da, onura jaso duen zenbatekora iritsi arte, eta eragindako kaltearen halako bi izango da gehieneko muga.

infractora, la sanción será aumentada hasta el importe en que se haya beneficiado, con el límite máximo del tanto al duplo del perjuicio ocasionado.

**29. artikulua. *Ikuskaritza.***

1. Udalak izendatutako langileek lagatako baratzeak eta instalazioak ikuskatu ahal izango dituzte edozein momentutan.

Langile horiek agintaritzat hartuko dira ikuskatzeko ahalmenak baliatzean.

Era berean, alkatea, baita, hala badagokio, eskuordetutako zinegotzia edo zerbitzuaren gaineko eskumen materiala duen zinegotzi eskuordetua; eginkizun eta eginkizun berberak izango dituzte.

2. Baratzeen erabiltzaileek instalazioetara sartzen utzi beharko diete uneoro ikuskatzaileei; gainera, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko diete, baratze publikoen kudeaketa, erabilera eta aprobetxamenduaren jarraipena egin ahal izateko.

**Artículo 29. *Inspección.***

1. El personal designado por el Ayuntamiento podrá llevar a cabo en cualquier momento actuaciones de inspección sobre las huertas e instalaciones cedidas.

Dicho personal tendrá la consideración de autoridad en el ejercicio de sus facultades de inspección.

Asimismo, el Alcalde o Alcaldesa, incluso, en su caso, el concejal delegado o concejala delegada con competencia material sobre el servicio, tendrán el mismo cometido y funciones.

2. Las personas usuarias deberán en todo momento facilitar al personal inspector el libre acceso a las instalaciones, así como el suministro de información que por dicho personal se les requiera, en orden al seguimiento de la gestión, uso y aprovechamiento del cultivo que se lleve a cabo de las huertas públicas.

**30. artikulua. *Arau-hausteak.***

1. Arau-haustetzat hartuko da zerbitzuaren pertsona erabiltzaileek Ordenantza honetan edo aplikagarri den beste edozein arauditan xedatutakoa urratzen duen ekintza edo jokabide oro joko da jokabide arau-hausletzat, baldin eta araudi hori Ordenantza honetan nahitaez bete beharrekotzat jasota badago.

2. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, arau-haustea eragin duen jokabidearen intentsitate- edo erruduntasun-mailaren arabera, edo instalazioetan eragindako kaltearen arabera.

**Artículo 30. *Infracciones.***

1. Se considerará conducta infractora todo acto o comportamiento llevado a cabo por alguna de las personas usuarias del servicio que contravenga lo dispuesto en la presente Ordenanza o en cualquier otra normativa que resultara de aplicación, siempre que esta última esté recogida como de obligado cumplimiento en la presente Ordenanza.

2. Las infracciones se calificarán en leves, graves o muy graves, en atención al grado de intensidad o culpabilidad en la conducta infractora, o al daño causado a las instalaciones.

ANOETAKO UDALA

3. Zehazki, eta aurrekoari kalterik egin gabe, arau-hauste arin gisa hartuko dira honako hauek:

a) Baratzeetan animaliak sartzea, gida-txakurrak izan ezik.

b) Baratzeetan nekazaritza-makinak ez diren trakzio mekanikoko ibilgailuak sartzea.

c) Gainerako pertsonei eragozpenak eragitea.

d) Ordenantza honek, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduak eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko Legeak ezarritako betebehar eta betebeharren aurkako beste edozein jokabide, baldin eta arau-hauste larritzat edo oso larritzat jotzen ez bada.

4. Arau-hauste larritzat hartuko dira honako jokabide hauek:

a) Baratzeen mantentze-lan egokiak ez egitea, horietan kalte-galerak eragin direnean.

b) Baratzeetan Udalaren baimenik gabeko obrak edo aldaketak egitea.

c) Baratzeetan Ordenantza honetan berariaz zehazten diren barazki-espezieak ez diren beste batzuk landatzea.

d) Baratzearen erabilera eta aprobetxamendua Udalaren baimenik gabe hirugarren pertsonei lagatzea.

e) Lurraren azalean nahiz lurpean kalteak eragin ditzaketen landare- eta barazki-espeziek landatzea.

f) Baratzeetan barbakoak, estalpeak edo

3. En concreto, y sin perjuicio de lo anterior, se considerarán infracciones leves las siguientes conductas:

a) Introducir animales en las huertas, salvo que sean perros guía.

b) Adentrarse en las huertas con vehículos de tracción mecánica que no sean agrícolas.

c) Causar molestias a las demás personas.

d) Cualquier otra conducta contraria a las obligaciones y deberes impuestos por esta Ordenanza, por el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales y por la Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas, que no tuviera la calificación de infracción grave o muy grave.

4. Tendrán la consideración de infracción grave la comisión de las siguientes conductas:

a) No realizar un adecuado mantenimiento de las huertas, cuando se hubieren originado perjuicios o deterioros en aquéllas.

b) Ejecutar obras o modificaciones en las huertas, que no hayan sido autorizadas por el Ayuntamiento.

c) No destinar las huertas al cultivo y plantación de aquellas especies vegetales propiamente hortícola, en los términos expresamente dispuestos en esta Ordenanza.

d) Ceder el uso y aprovechamiento de la huerta a terceras personas que no hubieran sido autorizadas para ello por el Ayuntamiento.

e) Cultivar especies vegetales o plantas que provoquen un deterioro de la tierra, del suelo o del subsuelo.

f) Instalar barbacoas, cobertizos o demás

| | |
|---|---|
| debekatutako beste elementu batzuk ezartzea. | elementos no permitidos en las huertas. |
| g) Baratzeko larreak edo laborantzako hondarrak erretzea edo edozein motatako sua sortzea. | g) Proceder a la quema de pastos o restos del cultivo de huertas, así como a la generación de cualquier tipo de fuego. |
| h) Udalak eta udal-teknikariek emandako jarraibideak ez betetzea edo horiei lursailean sartzea galaraztea. | h) No acatar las instrucciones municipales y del personal técnico municipal, o impedir a este personal el acceso a la parcela. |
| i) Urtebetean bi arau-hauste arin edo gehiago pilatzea. | i) Acumular dos o más faltas leves en el periodo de un año. |
| j) Beste titularren jarduera edo aprobetxamendua oztopatzea. | j) Impedir el normal aprovechamiento y uso de las huertas al resto de titulares. |
| 5. Arau-hauste oso larritzat hartuko dira honako jokabide hauek: | 5. Tendrán la consideración de infracción muy grave la comisión de las siguientes conductas: |
| a) Titular batek edo harekin dagoen beste edonork gauzatutako ekintzen eraginez beste pertsonei lesioak eragitea. | a) Causar lesiones a las demás personas, por actos propios cometidos por cualquier titular o terceras personas que lo acompañaren. |
| b) Lurzorua kutsatzea. | b) Provocar una contaminación del suelo. |
| c) Lursailaren erabilera edo landaketa hiru hilabetez alde batera uztea, hiru hilabeteak amaitu aurretik Udalari jakinarazitako salbuespenezko kasu arrazoituetan izan ezik. | c) Abandonar el uso o cultivo de la parcela durante más de tres meses, salvo excepciones debidamente justificadas que serán comunicadas al Ayuntamiento antes de finalizar los tres meses. |
| d) Baratzeen funtzionamendu arrunta oztopatzea edo eragoztea. | d) Impedir u obstruir el normal funcionamiento de las huertas. |
| e) Lagatzen diren instalazioak eta/edo lursaila bera modu larrian hondatzea. | e) Causar un deterioro grave y relevante a las instalaciones que se ceden y/o a la parcela en su conjunto. |
| f) Ereitea, landatzea, biltzea edo edukitzea debekatuta dauden landare psikotropikoak edo bestelakoak ekoiztea. | f) Cultivar plantas psicotrópicas u otras cuya siembra, plantación, recolección o tenencia estuviesen prohibidos. |
| g) Baratze publikoetan lortutako produktuak merkaturatzea. | g) Comercializar los productos obtenidos en las huertas públicas. |
| h) Baimena eskatzean, nortasuna, adina edo esleipenerako garrantzitsuak izan | h) Falsear, al solicitar la autorización, los datos relativos a la identidad, edad o |

ANOETAKO UDALA

daitezkeen gainerako datuak faltsutzea.

cualquier otro, relevantes para la adjudicación.

6. Baimenaren titularrak huts-egite arin, larri edo oso larriren bat egiten badu baimena kendu ahal izango zaio, ezar dakiokeen zigorrari kalterik egin gabe, hurrengo artikuluan xedatutakoari jarraiki. Baimena kentzeak ez dio erabiltzaileari kalte-ordainak jasotzeko aukerarik emango.

6. La comisión de alguna infracción leve, grave o muy grave por parte del titular de la licencia, dará lugar a la revocación de la misma, sin perjuicio de la sanción que asimismo se pueda imponer, conforme a lo dispuesto en el artículo siguiente. Dicha revocación no dará lugar al abono de indemnización alguna.

7. Erabiltzaileren baten jarrerak delitu- edo falta-izaera balu, gertakariak eskumena duen agintari judizialari jakinaraziko zaizkio, hark dagozkion erantzukizun penalak ezar ditzan. Hala eta guztiz ere, eta alde kaltetua den aldetik, Udalak dagozkion akzio penalak, zibilak edo administratiboak abiarazi ahal izango ditu.

7. Cuando la conducta llevada a cabo por alguna persona usuaria pueda revestir el carácter de delito o falta, se pondrán los hechos en conocimiento de la autoridad judicial competente, a fin de que se puedan determinar las posibles responsabilidades penales a que hubiere lugar. No obstante ello, el Ayuntamiento podrá instar las acciones penales, civiles o administrativas que como parte perjudicada le puedan corresponder.

**31. artikulua.** ***Zehapenak.***

**Artículo 31.** ***Sanciones.***

1. Dagozkion zehapenen zenbatekoa ezarri eta erabakitzeko, Ordenantza honetan jasotzen diren graduazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

1. Para la imposición y determinación de la cuantía de las correspondientes sanciones se atenderá a los criterios de graduación establecidos en la presente Ordenanza.

2. Emakidaren titularrak edozein arau-hauste arin, larri edo oso larri egiten badu, administrazio-emakida errebokatu egingo da.

2. La comisión de cualquier infracción leve, grave o muy grave, por parte de la persona titular de la concesión, dará lugar a la revocación de la concesión administrativa.

Baimena kentzeak ez du zigor-izaerarik izango, aurreko artikuluko seigarren atalean aurreikusten den moduan.

La revocación de la licencia, conforme se prevé en el apartado sexto del artículo anterior, no tendrá carácter de sanción.

3. Gainera, arau-haustea egiteak honako zehapen hauek ezartzea dakar:

3. Además, la comisión de la infracción conlleva la imposición de las siguientes sanciones:

- Arau-hauste arinek: 50,00 eta 150,00 € bitarteko isuna.

- Infracciones leves: multa de 50,00 € a 150,00 €.

- Arau-hauste larriek: 151,00 eta 300,00 € bitarteko isuna, eta erabiltzeko

- Infracciones graves: multa de 151,00 € a 300,00 €, e imposibilidad de acceder a una

ANOETAKO UDALA

administrazio-emakida berri bat eskuratzeko ezintasuna, gehienez 5 urterako.

- Arau-hauste oso larriek: 301,00 eta 1.500,00 € bitarteko isuna, erabiltzeko administrazio-emakida berri bat eskuratzeko ezintasuna, 5 eta 10 urte bitartekoa.

4. Instalazioei kalteak eragin bazaizkie, erantzukizuna duen erabiltzaileak hasieran bezala utzi beharko ditu gauza guztiak, eragindako kaltea konponduz.

Gauzak jatorrizko egoerara itzultzen ez badira, udalak modu subsidiarioan eta arau-hauslearen kontura egin ahal izango ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean edo hori aldatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

5. Zehatutako jokabideek administrazioei kalte edo galerak eragin dizkietenean eta kalte horiek ordaintzeko zenbatekoa espedientean zehaztu ez denean, prozedura osagarri baten bidez ezarriko da, eta prozedura hori Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko 1/2023 Legearen 45. artikuluaren arabera izapidetuko da.

**32. artikulua.** ***Zehatzeko eskumena duen agintaritza.***

Alkate-lehendakariak izango du dagozkion zigorrak ezartzeko eskumena.

Hala ere, Alkateak beste edozein tokiko organori eskuordetu ahal izango dio eskumen hori, betiere Tokiko Araubidearen Oinarrien Legeari jarraiki.

nueva concesión administrativa de uso de huertas municipales por un período de hasta 5 años.

- Infracciones muy graves: multa de 301,00 € a 1.500,00 €, e imposibilidad de acceder a una nueva concesión administrativa de uso de huertas municipales por un período de entre 5 y 10 años.

4. En el supuesto de que se hubieran causado daños a las instalaciones, la persona usuaria responsable vendrá obligada a reponer las cosas a su estado de origen, reparando el daño ocasionado.

En el supuesto de que no se repongan las cosas a su estado original, lo podrá llevar a cabo el Ayuntamiento de manera subsidiaria y a costa de la persona infractora, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o normativa que lo modifique.

5. Cuando las conductas sancionadas hayan causado daños o perjuicios a las administraciones y la cuantía destinada a indemnizar estos daños no haya quedado determinada en el expediente, se fijará mediante un procedimiento complementario que se tramitará de acuerdo con el artículo 45 de la Ley 1/2023 de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas.

**Artículo 32.** ***Autoridad competente para sancionar.***

La competencia para la imposición de las sanciones correspondientes se atribuye al Acalde-presidente o Alcaldesa-presidenta.

No obstante lo anterior, el Alcalde o Alcaldesa podrá en cualquier otro órgano local, con arreglo a la Ley de Bases de Régimen Local.

ANOETAKO UDALA

**33. artikulua.** ***Prozedura zehatzailea.***

Arau-hausleei zigorrak jartzeko prozedura zigortzaile bat ireki eta bideratu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 63., 64., 85., 89. eta 90. artikuluetan eta Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean aurreikusitako araubidearen arabera, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 25. artikulutik 31. artikulura araututako printzipioak errespetatuz (edo xedapen horiek aldatzen dituzten araudietan xedatutakoa betez).

**Artículo 33.** ***Procedimiento sancionador.***

La imposición de sanciones a los infractores exigirá la apertura y tramitación de procedimiento sancionador, con arreglo al régimen previsto en los artículos 63, 64, 85, 89 y 90 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas; y respetando los principios regulados en los artículos 25 a 31 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público (o lo estipulado en las normativas modificadoras de dichas disposiciones).

**34. artikulua.** ***Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.***

Arau-hauste oso larriak hiru urtera preskribatuko dira, larriak bi urtera eta arinak sei hilabetera.

Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenak hiru urtera preskribatuko dira, arau-hauste larriengatik ezarritakoak bi urtera eta arau-hauste arinengatik ezarritakoak urtebetera.

Zehatzeko ahalaren preskripzioa gorabehera, Anoetako Udalak arduradunei eskatu ahal izango die gauzak lehengo egoerara itzul ditzatela, igarotako denbora edozein dela ere.

**Artículo 34.** ***Prescripción de infracciones y sanciones.***

Las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años y las leves a los seis meses.

Las sanciones impuestas por infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las impuestas por infracciones graves a los dos años y las impuestas por infracciones leves al año.

No obstante la prescripción de la potestad sancionadora, el Ayuntamiento de Anoeta podrá exigir a los responsables la reposición de las cosas a su estado anterior, cualquiera que sea el tiempo transcurrido.

***Azken xedapena.***

Ordenantza hau behin betiko onartu eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean sartuko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 eta 70.2 artikuluak betez.

***Disposición final.***

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez aprobada definitivamente y publicado su texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en cumplimiento de los artículos 65.2 y 70.2 de la Ley de Bases de Régimen Local.

...”.

Ondoren, EAJ taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonell Mirandak, hitza hartu du eta adierazi du bere taldea ados dagoela proposatutako aldaketekin, ez ordea gaztelaniazko testuaren bertsioak jasotzen dituen esamolde maskulinizatu batzuekin. Hori dela eta, eskatu dute egin beharreko aldaketak egiteko proposatutako testuaren gaztelaniazko bertsioa inklusiboa eta ez-sexista izan dadin.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

**EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Gaztelaniazko testuan egin beharreko aldaketak egitea, bertan erabilitako hizkera inklusiboa eta ez-sexista izan dadin.

Gaztelaniazko testuaren proposamen berria Osoko Bilkurako kideei bidaliko zaie, hala badagokio, bertsio berriarekin ados daudela jakinarazi dezaten.

**BIGARRENA.** Anoetako baratze publikoen emakida eta erabilera arautzen duen Ordenantzaren aldaketari hasierako onespena ematea (2024DORD0001), testua aurreko puntuan jasotako moduan aldatuta, eta Udalbatza osatzen dutenen oniritzia jaso ondoren.

**HIRUGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz, hogeita hamar eguneko epean, Udalbatzak ebatziko dituen erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Halaber, Ordenantzaren testua Udalaren web atarian (www.anoeta.eus) argitaratzea, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak biltzeko.

**LAUGARRENA.** Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onetsitzat joko da Udalbatzak berariazko akordiorik egin beharrik izan gabe, eta Ordenantza isilbidez behin betiko onesteko erabakia, testu osoarekin batera, Udaletxeko iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, jende guztiak horren berri izan dezan.

Halaber, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan (www.anoeta.eus).

Gainera, Estatuko Administrazioari eta Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion sailari igorriko zaie, hamabost eguneko epean, hasierako onespena behin betiko bihurtu dela egiaztatzen duen ziurtagiria, baita kautotutako kopia osoa ere.

**BOSGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten mota guztietako agiriak sinatzeko.

**3.- AGINAZPI HERRI-BIDEKO ZATI BATEN KALIFIKAZIO JURIDIKOAREN ALDAKETA (JABARI PUBLIKOKO ONDASUN IZATETIK ONDARE-ONDASUN IZATERA), ETA ONDOREN TRUKATU AHAL IZATEKO, BEHIN BETIKO ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

2022ko maiatzaren 30ean, Udalbatzak, ohiko Osoko Bilkuran, “Anoetako herri-bideen inbentarioa” onetsi zuen.

2023ko uztailaren 26an eta 1026 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Josu Zumeta Mayozek eskaera aurkeztu zuen Anoetako Udalean, Aginazpi Baserriaren atari aurretik pasatzen den bidea etxearen goiko aldeko sagastitik desbideratzea eskatuz.

2024ko urtarrilaren 17an Ingurumen Saileko langileak txostena egin zuen eta bertan, aurkeztutako eskaeraren arrazoitzat, honakoa jasotzen zuen:

“...

*Eskaera egitearen arrazoi nagusia gaur egungo bidearen erabileran eta honek sortzen dituen ondorioetan dago. Izan ere, Alkizarako doan mendi-bidea izaki, aisialdiari lotuta, jende asko ibiltzen da oinez, korrika nahiz bizikletaz. Gaur egungo bidea etxearen atari aurretik pasatzen da eta honek zaildu egiten du elkarbizitza, eta animalien presentziak, baita arriskua handitu ere*.

...”.

Aginazpi Baserrira ematen duen bide publikoaren datuak ondorengoak dira:

| 09. AGINAZPI HERRI-BIDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Katastroko erreferentzia** | 02-021 | | | | |
| **Hasiera** | 8. bidea Axibar | | | | |
| **Amaiera** | Alkizako Udalerria, Agina | | | | |
| **Sarbideko eraikina** | Aginazpi baserria | | | | |
| **Ezaugarriak** | **Luzera** | **Zabalera** | **Zorua** | **Egoera** | **Sailkapena** |
| Hasiera | 560 m | 3 m | Asfaltoa | Ona | 1 |
| Bukaera | 123 m | 1,5 m | Lurra | Ona | 3 |
| Luzera guztira | 683 m | | | | |
| **Bidearen egoera** | Egoera onean eta lur-zatiaren trazatua nabaria da. | | | | |
| **Bidearen erabilera** | Aginazpi baserrira eta lursailetara joateko, baita paseatzeko ere. | | | | |

Eskaera aztertuta, eta Ingurumen Saileko langileak egindako txostenarekin bat eginez, ondorioztatzen da jarraitu beharreko prozedura ondorengoa dela: lehenik eta behin, 09. Aginazpi herri-bidea desafektatu behar da; ondoren, interesatuak proposatutako desbideraketa egiteko, beraren titulartasuneko bidearekin permutatu behar da; azkenik, permutan jasotako bidea herri jabarira afektatu behar da.

Interesatuak proposatutako desbideratze-bidea ondorengoa litzateke:

| 09.1 AGINAZPI ALDAERA | |
|---|---|
| **Katastroko erreferentzia** | 02-021 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Hasiera** | 8. bidea Axibar | | | | |
| **Aldaeraren hasiera** | 9. eta 10. bideen bidegurutzea | | | | |
| **Amaiera** | Alkizako Udalerria, Agina | | | | |
| **Sarbideko eraikina** | | | | | |
| **Ezaugarriak** | **Luzera** | **Zabalera** | **Zorua** | **Egoera** | **Sailkapena** |
| Hasiera | 335 m | 3 m | Asfaltoa | Ona | 1 |
| Bukaera | 315 m | 1,5 m | Lurra | Ona | 3 |
| Luzera guztira | 650 m | | | | |
| **Bidearen egoera** | Egoera onean eta lur-zatiaren trazatua nabaria da. | | | | |
| **Bidearen erabilera** | Lursailetara joateko, baita paseatzeko ere. | | | | |
| **Oharrak** | Bide hau, Aginazpi baserritik barrena, Alkizara igarotzeko erabiltzen bazen ere, bidea Aginazpi baserriaren atari aurretik aldentzea erabaki da eta mendebaldeko sagastitik barrena bide eratorri bat onartzea. | | | | |
| **Deskribapena** | Bide eratorriaren hasieran 9. eta 10. herri-bideen bidegurutzean hasten da. Bide hau, aurreko bidea bezala, 02-021 lursailean kokatzen da eta Aginazpi baserriaren sagastia zeharkatzen du, berriro ere, Aginaga baserriarekin lotzen duen herri-bidearekin elkartzeko.<br>Honakoak dira bide eratorri berriaren hasieraren eta amaieraren koordenadak:<br>- Hasiera: 43º10'19.21"N / 2º05'05.16"O<br>- Amaiera: 43º10'23.50"N / 2º05'08.61"O | | | | |

Interesatuak proposatutako permutak ondorengo onurak ditu Anoetako Udalarentzat eta Udalerriarentzat:

- Aginazpi baserrirako atarira doan asfaltozko bidearen mantenua baserriaren jabeen gain geratzen da eta, beraz, Udalak lur-bide horretako lanak soilik egin beharko lituzke (urbideen mantenua, bideko oztopoen garbiketa...), Udalaren gastua gutxiagotuz.

- Herri-bidea baserri ingurutik aldentzeak gutxitu egiten ditu erabiltzaileentzako arriskuak eta elkarbizitza errazten du.

Idazkari Kontu-hartzaileak txostena egin zuen 2024ko urtarrilaren 24an, espedientean zuzendu beharreko zenbait puntu jasota eta, behin horiek konponduta, ebazpen-proposamena egin zuen 2024ko otsailaren 21ean.

2024ko otsailaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, Udalbatzak, besteak beste, ondorengoa ebatzi zuen:

"...

**LEHENA.** Hasierako onespena ematea Aginazpi izeneko bide publikoaren kalifikazio juridikoaren aldaketari, espedientean proposatutako desbideratzeari dagokion zatian, zati hori jabari publikoko ondasun izatetik ondare-ondasun izatera pasatuz.

**BIGARRENA.** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea hilabeteko epean, epe horretan egoki iritzitako alegazioak aurkez daitezen.

Era berean, espedientea interesdunen eskura egongo da udal honen egoitza elektronikoan.

...”.

Erabakia 2024ko martxoaren 8an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 49. GAOn, baita Udaletxeko iragarki-oholean ere.

2024ko apirilaren 15ean, Idazkariak ziurtagiria egin zuen, egiaztatzeko espedientea jendaurrean egon dela 2024ko martxoaren 8tik (49. GAO), hilabeteko epez, eta epe horretan ez dela alegaziorik aurkeztu.

Azkenik, 2024ko apirilaren 19an, Idazkariak ebazpen-proposamen-txostena egin zuen, ondorengo edukiarekin:

“...

**LEHENA.** Behin betiko onespena ematea Aginazpi izeneko bide publikoaren kalifikazio juridikoaren aldaketari, espedientean proposatutako desbideratzeari dagokion zatian, zati hori jabari publikoko ondasun izatetik ondare-ondasun izatera pasatuz.

**BIGARRENA.** Korporazioko Ondasunen Inbentarioaren Liburuan jasotzea ondasun higiezinak izan duen kalifikazio juridikoaren aldaketa, eta Jabetza Erregistrora eramatea, aldaketa hori jasota gera dadin dagozkion erregistro-idazpenen edo -idatzoharren bidez.

**HIRUGARRENA.** Desafektatutako bidea dagokion ondasun higiezinarekin trukatzeko espedientearen aurreko izapideak hastea. Adierazitako ondasun higiezin horren jabetza, erdibana, honako ezkontza eta irabazpidezko sozietate hauen jabetza da: Ricardo Beloqui Arizmendi eta Isabel Mayor Arsuaga, eta Jesús Zumeta Echeveste eta Margarita Mayoz Arsuaga.

**LAUGARRENA.** Eskatzea Idazkari Kontu-hartzaileari txostena egiteko Ingurumen Saileko langileak 2024ko otsailaren 21an egindako balorazio-txostenaren gainekoa.

**BOSGARRENA.** Alkatetzari ahalmena ematea aurreko akordioak betearazteko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

...”.

Idazkariak hitza hartu du bere ebazpen-proposamen-txosteneko akats bat zuzentzeko; izan ere, hirugarren puntuan, trukearen bidez eskuratu nahi den bidearen titularrak izendatzerakoan, akats ortografiko bat dago Isabelen abizenean: Isabel Mayo*r* Arsuaga ordez, Isabel Mayoz Arsuaga da.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

**EBAZPENA**

**LEHENA.** Behin betiko onespena ematea Aginazpi izeneko bide publikoaren kalifikazio juridikoaren aldaketari, espedientean proposatutako desbideratzeari dagokion zatian, zati hori jabari publikoko ondasun izatetik ondare-ondasun izatera pasatuz.

**BIGARRENA.** Korporazioko Ondasunen Inbentarioaren Liburuan jasotzea ondasun higiezinak izan duen kalifikazio juridikoaren aldaketa.

**HIRUGARRENA.** Desafektatutako bidea dagokion ondasun higiezinarekin trukatzeko espedientearen aurreko izapideak hastea. Adierazitako ondasun higiezin horren jabetza, erdibana, honako ezkontza eta irabazpidezko sozietate hauen jabetza da: Ricardo Beloqui Arizmendi eta Isabel Mayoz Arsuaga, eta Jesús Zumeta Echeveste eta Margarita Mayoz Arsuaga.

**LAUGARRENA.** Alkatetzari ahalmena ematea aurreko akordioak betearazteko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

## II. GOBERNU ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

### ALKATETZA

**4.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Alkatetzak 2024ko martxoaren 16tik apirilaren 15era bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

EAJ taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonell Mirandak, 177. dekretuari buruzko informazioa eskatu du; zehazki, dekretu horretan esleitutako udal obradoreko obren arrazoiei buruzkoa. Alkateak erantzun dio kontratatutako obrak obradoreak legez funtzionatzeko beharrezkoak direla, eta horiek txosten tekniko batean jasota daudela. EAJ taldeko bozeramaileak obra horiek kontratatzeko espedientea eskatu du, baita Alkateak aipatutako txosten teknikoa ere, obradorearen instalazioaren legezko gabeziak jasotzen omen dituena.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### ANTOLAKUNTZA

**5.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12.

artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

| **179. DEKRETUA**<br>**2024.03.22.** | |
|---|---|
| **Hartzekodunak** | **IFZ / IFK** |
| MADDI SARASOLA EIZMENDI | 44332401Q |
| **ADO** | **Zenbatekoa** |
| “P” fasea | 2.500,03 € |
| **Kontzeptua** | |
| Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2024ko martxoko nomina | |
| **Laburpena** | |
| Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko martxoaren 21ean eragozpenezko txostena egin zuen 2023ko ekainaren 16an egindako eragozpenezko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:<br><br>“*I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarririk ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehienezko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena*”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragraforaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espedientearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte. | |

| **180. DEKRETUA**<br>**2024.03.22.** | |
|---|---|
| **Hartzekodunak** | **IFZ / IFK** |
| JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIARENA | 72445464H |
| **ADO** | **Zenbatekoa** |
| “P” fasea | 2.050,66 € |
| **Kontzeptua** | |
| Jose Miguel Otaño Garciarenaren nomina: 2024ko martxoko nomina | |
| **Laburpena** | |
| Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko martxoaren 21ean eragozpenezko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpenezko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:<br><br>“*Gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkutatutako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garciarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin*”. | |

| **208. DEKRETUA**<br>**2024.04.08** |
|---|

ANOETAKO UDALA

| Hartzekodunak | | IFZ / IFK |
|---|---|---|
| SARENET, SAU | | A48714489 |
| **Prozedura** | | |
| Serbidorearen segurtasun kopien mantenua | | |
| **Faktura zenbakia** | **Bidalketa data** | **Zenbatekoa (BEZ barne)** |
| P24032363 | 2024.03.01. | 97,31 € |
| **Laburpena** | | |
| Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko apirilaren 4an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengoa adieraziz:<br><br>- Orain arte Sarenet, S.A.U. enpresak helarazitako fakturetan "telefono zenbakien eramangarritasuna" kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, "Serbidorearen segurtasun kopien mantenua" kontzeptua erabilita. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberagatik.<br><br>- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen araberakoa;<br><br>- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatua dago;<br><br>- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;<br><br>- Gainera, ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa. | | |

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

## MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

## GALDE-ERREGUAK

### 6.- GALDE-ERREGUAK.

Ez da galde-erregurik egon.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:14etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.